

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

GUNE ESTALIEN BEHARRARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2021eko azaroaren 15ean Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2020ko azaroan, Egia Bizirik auzo elkarteko kideek txosten bat helarazi ziguten Udalbatza osatzen dugun taldeoi auzoko behar eta arazo batzuk zerrendatuz. Horietako asko mantenimenduari eta gune estalien beharrek erlazionatutako gaiak dira.

Plaza Haundiko gune estaliari dagokionez, partaidetza prozesua bukatu ondoren proiektua definitu zen eta lehenengo eraikuntza fase baterako 1.300.000€-ko aurrekontua aurreikusi zen. Aurreko agintaldiko Udal Gobernuak iragarri zuen obrak 2018. urteko udazkenean hasiko zirela eta zortzi hilabeteko epea izango zutela. Hiru urte joan diren honetan, bizilagunek zain jarraitu dute obrak noiz hasiko. Delegatuak batzordean emandako informazioaren arabera, hainbat arazo eta baimen falta zirela medio, gune estali honen proiektuarekin jarraitzeko zailtasunak izan zituen Udal Gobernuak.

Azkenean, urrian auzo elkarteak bidalitako mezu baten bidez jakin dugu elkarte gisa gaia alde batera utziko duela etsipenagatik eta Udal Gobernuaren aldetik jaso duen erantzun faltagatik.

Gogorarazi behar da, bestalde, Grosen, Zuberoa plazako gune estalia ere baztertu duela Udal Gobernuak (2017rako obra honek amaituta egon behar zuen). Eta harrigarria da, izan ere, 2019ko maiatzaren 17an Udal Gobernuak, prentsan egindako adierazpenetan, Zuberoa plazako gune estaliaren proiektua bertan behera utziko zuela adierazi zuen, aurrekontu guztia Egiakoan inbertitzeko (hau da, aurrekontuaren egokitzapena egin zuen Zuberoa plazako 785.000 euro Plaza Haundin erabiltzeko).

Gauzak horrela, 2015etik aurrera Donostian estaltzea aurreikusten ziren hiru plazetatik bat bakarrik dago estalita eta 2022ko aurrekontuei begira gobernuak ez du azaldu inolako gune estalirik egiteko intenziorik. Gauzak horrela, badirudi beste urtebetez hiriak ez duela gune estali gehiago izateko aukerarik izango.

Gogora dezagun lehengo agintaldian udal talde honek Gune Estalien Batzordea sortzeko aukera planteatu zuela eta hori ere baztertua izan dela etengabe.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Hilabete honetako batzordean delegatuari adierazi diogunean hirian gune publikoen beharra dagoela eta, pandemiaren ondorioz, kalean espazio publiko irekien beharra areagotu dela, ez dugu erantzun zehatzik jaso Udal Gobernuaren aurreikuspenez.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2022. urteko aurrekontuan gune estalien beharra kontuan har dezala, horretarako inbertsio bat bideratuz.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari hiriko gune estalien beharrak aztertzeko eta obren jarraipen egokia egiteko batzorde bat sor dezala.

Donostian, 2021eko azaroaren 18an



Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia